

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leonor Larrañaga Azurza

*Eibar, Gipuzkoa
(1913-2002)*

Aurkibidea



Biografia



Gerra garaian Eibartik Durangora joan ziren ihesi ama-alabak. Bertan, bonbardaketak bete-bete harrapatu zituen. Asturias aldera jo zuten ondoren eta bertatik Valentziara eraman zituzten, Alberiquera. Han armalantegi batean hasi zen lanean Leonor. Eibarrera itzulitakoan, kartzelara sartu zuten. Bizimodu gogorra ezagutu bazuen ere, emakume oso alaia eta bizia zen. Herriko hainbat ekitalditan parte zuzena hartzen zuen eta oso maitatua zen.

Zintak

AB-181

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-09-13
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** VHS C

AB-182

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-09-13
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** VHS C

AB-183

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-02-29
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Gerra Zibila Euskal Herrian; Durangoko bonbardaketa

- **Erref:** AB-183/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Gerra zibila. Euskal Herritik ihesi, 3 urte egin zituen Valentzian. Gerra hasi eta Durangora alde egin zuten lehenik. Durangoko bonbardaketa; kasualitatez ez zitzaion ezer gertatu. Bere begien aurrean soldaduek, kartzelan zeuden presoak kanposantura eraman eta fusilatu egin zituzten. "Gerria desastria da gero, e? ene... gerria da horrorosua!".

2. Eibartar asko Valentziako hainbat herritan lanean gerra garaian

- **Erref:** AB-183/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra Zibila. Durangotik, Castro Urdiales-era joan ziren. Bonbardaketa izugarria. Tunel batean egin zuten lo. Handik Valentziara joan behar zirela esan zieten. Han 3 herritan egon ziren: Alberique; Buñol eta Alginet. Bertan egiten zuen lana zein zen azaltzen du.

3. San Blas opilak egiteko ohitura

- **Erref:** AB-183/016
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

San Blasak. Beti berdin ospatu izan dira. "Oin saldu egitten da asko, baiña egin gitxi". San Blas bezperan anis usaia egoten zen toki guztietan.

4. San Blas opilak parrokiara eramaten ditu bedeinkatzera

- **Erref:** AB-183/020
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>San Blas opilak San Andres Parrokiara eraman izan ditu beti bedeinkatzera. Bi meza egoten ziren, eta beti bete-bete eginda egoten zen eliza.</p>

5. San Blas opilen inguruko hainbat kontu

- **Erref:** AB-183/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

San Blas opilak zapi zuri batean batuta eraman izan dira beti bedeinkatzera. Bedeinkatutako kordioak, katarrorik ez harrapatzeko. Ohitura zaharraren arabera, bedeinkatu gabeko San Blasik ezin da jan. Leonorrek gaixorik dagoen jendiari, lagunei... banatzen dizkie San Blas opilak.

6. San Blas opilen errezeta

- **Erref:** AB-183/023
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

San Blas opilen errezeta. Beharrezkoak diren osagaiak: gurina; irina; arrautzak; anisa eta azukrea. Gauzarik zailena, San Blas opilen gainekaldeko zuria egitea da; horrek du lan gehien.

7. Aldatze Ikastetxea; arratsaldetan bordatzen ikasten

- **Erref:** AB-183/027
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Aldatze ikastetxean ikasi zuen, baina ez zitzaion gehiegi gustatzen. Goizez klaseak izaten zituzten; arratsaldez esku-lanak. Josten oso esku ona izan du beti; 1go saria ere behin baino gehiagotan irabazi zuen.

8. Aldatze Ikastetxeko uniforme

- **Erref:** AB-183/029
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:42:15. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Aldatze Ikastetxea. Uniformea erabiltzen zuten; urdina eta plisatua. Ume asko zeuden bertan ikasten; gosaltzeko garaian ere mahai oso bat betetzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com